



Telleria anaien idi  
parea nagusi  
Aiako proban

Pepenea baserriko Iñaxio eta Joxe Antonio Telleria anaien idi parea nagusitu zen Aian martxoaren hasieran jokaturako proban. Jada ez da idirik erabiltzen baserriko lanetarako, baina oraindik badira soilik probetarako idiak hazten dituztenak. Pepenea baserrikoak horren adibide, zazpi idi bikote dituzte oraindik. /4-



Herritar ugari hurbildu ziren atzo Zubietara. Askok dantza egin zuten erreboteko frontoian, besteek berriz ikusi eta animoak eman.

## Flash Mob erraldoia Zubietan

Atzo egin zen Zubietan, festa erraldoia Errauskailuaren eraikuntzaren moratoria eskatzeko. Gipuzkoa Zero Zaborrek dei-

tuta, asteak dira interneten eta hainbat herritan dantzaren bideoak eskaini eta entsaioak antolatu direla atzoko koreografia ikasteko. Zubietan gai-

nezka egon zen goiz osoan zehar, bai pailazo, Dj edo dantzariak ikusteko, baita dantzatzeko ere. Dantza behin baino gehiagotan egin

zen, eta saio batzuetan kartulina berdekin, MORATORIA hitza irudikatu zuten dantzariak, globo baten bidez hartutako irudietan ikusteko. •

## Lore eskaintza egin zioten Froilan Elesperi

Hamar urte bete ziren atzo, martxoaren 20a, Froilan Elespe, Lasarte-Oriako alkateordea hil zutenetik. Egun hori gogoratzeko, aurten ere, PSE-EE alderdiko kideek Elesperen oroimenez lore eskaintza egin zuten herriko hilerrian.

Bertan, besteak beste, Jesus Zaballos Lasarte-Oriako alkatea, Iñaki Arriola Gipuzkoako Idazkari Nagusia, herriko zinegotziak eta hainbat alderdi kide eta lagun egon ziren alarguna eta familiaren ondoan. •



Urtero bezala, jende ugari hurbildu zen Illarraztueta hilerria loreak eskaintzera Froilan Elesperi.

KIROLA/2

XXIII. Squash txapelketai hasiera emango zaio gaur

GIZARTEA/5

Oinatz taldekoek Lasarte-Oriako mugak erreparasatu zituzten

GIZARTEA/6

Peio Eskisabel herritarraren epaiketa hasi da Parisen



## Amaia González Caballero

### DANTZA-ESKOLA

EUROPAKO ETA EUSKADIKO  
TXAPELDUN  
ARETO-DANTZAN



Apirilean ikastaro berriak informatu zaitez!!

Dantza mota ezberdinak haur eta helduentzat

**Aretoko dantzak:**  
pasodoblea, tangoa, vals, rock and rolla...

**Latinoak:**  
salsa, merengea, cha-cha-cha, bachata...

Sevillana, flamenkoa eta kriskitinak

Funky eta Hip-hop

Sabel dantza

Jaizkibel plaza 8, atzealdea · Lasarte-Oria · Tel.: 606 974060

# Squash Txapelketa gaur hasiko da

Bi multzotan banaturik hogeita hiru parte-hartzaile izango dira lehen fasean lehiatuko direnak

**H**ogeita hiru parte-hartzaile eta helburu bakarra, hots, XXIII. Squash Txapelketako finalean nagusitzea. Horretarako aukera soilik finala jokatzeko duten bi jokalariek izango dute, ordea, eta horretarako partida asko irabazi beharko dituzte final handian egon nahi dutenek.

Gaur, kiroldegian, jokatuko dituzte maiatzera bitartean luzatuko den edizio berri honetako lehenengo partidak.

## Lehiatzeko sistema

Dagoeneko ohitura bilakatu den txapelketan ez da aldaketarik izango eta antolatzaileek aurreko edizioetako arauak mantendu dituzte.

Hogeita hiru parte-hartzaileak bi multzotan banatu dituzte, bakoitzean hamar.

Multzo bakoitzean guztiak guztien aurka neurtuko dituzte indarrak itzuli bakarrean eta lehen fasearen amaieran multzo bakoitzeko hiru onenek Txapelketaren Faserako sailkapena eskuratuko dute.

Bigarren fase horretan ligasak jokatu ondoren lehenengo bi sailkatuek finalerako txartela lortuko dute. Hirugarren eta laugarrenok, aldiz, Kontsolaziozko finala jokatuko dute.



Udabe eta Erkizia azken bi finalean egon dira. Aurten ere finalean egon daitezke, baina hemezortzi lehiakide dauzkate garaitzeko.

Gainontzeko hamalau jokalariek, kanporaketa sistemaren bidez jokatu den kontsolazio fasearekin konformatu beharko dute.

## Arauk

Partidak hamabost tantotako bost jokotara izango dira, hiru irabazi behar, beraz, puntuak eskuratzeko. Honen harira,

antolatzaileek adierazi digutenez, bigarren fasea jokatu ahal izateko lehenengo faseko partida guztiak jokatzeko ezinbesteko baldintza da.

Finalera bitartean, norgehiagokak astelehenera zehar jokatu dira asteleheneratik ostiralera kiroldegiko squash pistan. Egunerok bi lehia izango dira jokoan eta 18:00ak

eta 20:00ak bitartean jokatuko dira.

Partidaren bat jarritako egun eta orduan jokatzeko ezinbesteko epean jokatzeko ados jarri beharko dira jokalariek antolatzaileekin jakinarazi dutenez. Partidaren ordu aldaketa doakoa izango da ezarritako orduaren aurretik egiten bada. Jokalari

bakoitzak, gehiezin, hiru ordu aldaketa egin ahalko ditu.

## Txapelaren bila

Gogora dezagun, besteak beste, azken bi urteetan finalera iritsi eta txapela eskuratu duten bi kirolariak, Agustin Erkizia eta Alberto Udabe txapelketan parte hartuko dutela.

Gainera, gaur abian jarriko den txapelketako lehen norgehiagoketan biak lehiatu ikusteko aukera egongo da, Agustin Erkizia Iñaki Garcia izango du arierio eta Alberto Udabe Veronica Gonzalez izango du aurrez aurre.

Era berean, aipagarria da, hogeita hiru edizioen ondoren, aurten lehenengo aldia dela emakumeek txapelketa honetan parte hartuko dutena.

Haiek arestian aipatutako, Veronica Gonzalez eta Irati Agirre dira eta hauek ere lan egingo dute txapelketan aurrera egiteko.

Izan ere, txapelketa sozial honetako azken partida jokatu nahiko dute parte-hartzaile guztiak, baina gogor lehiatu beharko dira fase desberdinetan. Urtertik urtera maila handitzen doan squash txapelketa baita herrikoa. •

## Pili Bodegas Lilatonean garaile

**L**ehengo igandean, martxoaren 13an, XXII. Lilatoia izan zen Donostian.

Lasterketa honek 2.000 emakume baino gehiago bildu zituen Donostiako kaleetan barrena korrika eta-horietako 30 bat lasarteoriatarak izan ziren.

Gainera, edizio honetako irabazlea herrian bizi den Pili Bodegas izan zen 18 minutu eta 17 segunduko denborarekin. •



Pili Bodegas XXII. Lilatoneko podiumeko lehengo mailara igo zen. Arg.: www.lilaton.com

## Criado eta Cruz de Eulate ehizan irabazleak

**B**uruntza Azpi ehiza eta arrantza elkarteak, martxoaren 12an, larunbatean elkarteko ehiza txapelketa antolatu zuen.

Buruntza mendiko magaletan burutu zen lehiaketan giro onean burutu zen.

## Sailkapena

Gauzak honela, senior mailan, Jesus Criado izan zen irabazlea.

Bigarren sailkatua Luis Sanchez eta hirugarren postuan, Asier Olazabal.

Beteranoetan, aldiz, Juan Cruz de Eulate izan zen txapelketa irabazlea.

## Bazkaria

Txapelketaren ostean, ohitura denez, indarrak berreskuratzeke guztiak elkarteko egoitzan bildu ziren bapoz bazkaltzeko. •

Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintzarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintzarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Herriko haur eta gazteek ongi pasatzeko aukera izango dute Amaraun klubak eta Gazte klubak prestatutako jolas eta probekin.

## Asteburuan gozatzeko aukera

■ Amaraun klubeko haurrak Adunara asteburu pasa doaz ■ Gaztetxoek, berriz, Gazteburua dute

**H**urrengo asteburuan, martxoaren 26 eta 27an, herriko haur eta gaztetxoek ez dute aspertzeko aukerarik izango Amaraun klubak eta Gazte klubak antolatutako ekintzei esker.

### Asteburu pasa

Amaraun klubeko umeek abentura berriak bizitzeko aukera izango dute hurrengo asteburuan.

Larunbatean 11:00etan ludotekatik atera eta Adunako Uztartza aterpetxean asteburu pasa egingo dute klubeko haurrak.

Larunbatean, ekintza ugari eta udaberriko festa berezia antolatu dira guztiek primeran

pasatzeko. Gainera, igandean, kirola egiteko aukera izango dute Euskal Krosa-Eneko Castro oroitzenekoan.

Antolatzaileek azaldu digutenez, "nahi duten haurrek parte hartuko dute kro-sean. Guk beroketa batzuk egingo ditugu eta korrika egingen ez dutenekin jolasak egingo ditugu".

Honela, gurasoek Atsokarrek parkean jasoko dituzte haurrak.

Irteerako prezioa 18 euro dira, Ttakuneko bazkideentzat izan ezik. Horiek 15 euro ordainduko dute.

Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko, bi modu daude, bata 943 371

448 telefono zenbakira deitu eta bestea, Ttakun kultur elkartera, Geltoki kalea 4 zenbakira hurbildu.

Asteburu pasa honetan apuntatzeko azken eguna, martxoaren 24a, osteguna da.

### Mihiluze erraldoia

Gazteek ere larunbata arratsalde paregabeaz gozatzeko aukera dute. Gazteburuen saio berri honetan, mihiluze berezi batean parte hartzeko aukera izango dute.

Arratsaldeko 17:00etatik aurrera, Gazte klubera hurbiltzen diren gaztetxoek proba eta pista ugari gainditu beharko dituzte mihiluzeean nor den jakiteko. •

### ATERPEA

## UNE 175.001 Kalitate-ziurtagiria eskuratu dute herriko hiru dendek

Lasarte-Oriako Aterpea Merkatarien elkarteko kide diren hiru komertzio, Maiane Lurrindenda, Abreu Bazarra eta Arregui elektrizitate dendak, UNE 175.001 merkataritzako kalitate-ziurtagiria eskuratu dute.

Euskalit Bikintasunerako Euskal Fundazioak ematen dituen ziurtagiri hauek bezeroentzako arreta-zerbitzua kalitatezkoa dela eta komertzio horretako langileen profesionaltasuna baieztatzen dute.

Ernuako antzerki aretoan atzo burutu zen ekitaldian Eusko Jaurlaritzako eta Euskaldendak elkarteko ordezkarien eskutik hartu zuten hiru dendek kalitate hori ziurtatzen duen diploma, Euskadiko beste 97 komertzioarekin batera. •

### BIYAK-BAT

## Erretiratuen bidaia Benidorrera

Biyak-Bat elkarteko bazkide guztientzako 15 eguneko bidaia antolatu da Benidorrera. Irteera maiatzaren 15ean izango da eta itzulera 29an. Benidorreko Cristal Park izeneko hotolean hartuko da ostatu, osoko pentsioan eta edariaren erregimen berezian.

Bidai honetan gainera Turiaren hiriburua, hau da Valentzia ezagutzeko parada egongo da. Eta guzti hau 559 euroko prezioa izango duelarik. Norbaitek logela konpartitu nahi ez badu 240 euroko gehigarria ordaindu beharko du.

Biyak Bat erretiratuen elkartetik gogorarazi nahi dute bidai hau aurrera atera ahal izateko gutxienez 50 pertsona beharko direla. Norbaitek informazio gehiago nahi izanez gero elkarteak Kale Nagusian duen egoitzatik pasa beharko du. •

### KIROLA

## Igerilekua itxia larunbata arratsaldean

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakin arazi du, igeri txapelketa dela eta Udal igerilekua datorren larunbatean martxoaren 26an, arratsalde 16:00tik 19:30era arte itxia egongo dela erabiltzaileentzat.

Kirol instalazioetako abonatuak Andoain, 943 300 147, eta Usurbilgo, 943 372 498, igerilekuak erabiltzeko aukera izango dute. •


### PARTEHARTZEA

## LOHPko partehartze karpa Zabaleta auzoan egon zen larunbat goizean

Berriro ere jarri dute martxan Lasarte-Oriako Herritarren Plataformako kideek Herritarren Partehartze Karpak. Larunbat goizean Zabaleta auzoan izan ziren. Hasiera batean 11:00etatik 13:00ak arte egon behar baziren ere, lehenago jaso behar izan zuten eguraldia medio.

Karparen bidez, plataformako kideek, herritarren kezak, arazoak, ekimenak ezagutu eta bildu nahi dituzte, gero udalera behar duen moduan iritsi daitezten.

Hamabos egun barru Zumaburu auzoan egongo dira eta hilabete barru (gutxi gorabehera) Andatza plazan izango dituzue zain zuten kezak edo kezak helarazteko. •



Hamabos egun barru Zumaburu auzoan egongo da LOHPko partehartze karpa.

## Energiaz beteriko antzezlanaren izan zen

**K**ing Kong neska izeneko antzezlanaren eskaini zuten Josune Monton aktoreak ostiral iluntzean Jalgin.

Energia askorekin, Josunek Virginie Despentes idazle frantziarraren *Teoria King Kong* liburuko hitzaurrearen itzulpena eskaini zuten. Emanaldiaren hasieran *Barbie* itxurako panpin bat kaiola baten barruan sartu zuten, bere poltsan zituen tramankuluak atera eta azalpeni ekin zion. Mundu honetan, gizartearen dauden emakume mota ezberdinak azaldu zituen. Argi azaldu zuten gainera, gizarteak markatu nahi duen emakume-ama tipologi idealizatu hori ez zuela ezagutzen, agian ez dela existitzen. •



Aktoreak, emanaldiaren hasieran, *Barbie* itxurako panpin bat sartu zuten kaiola batean.

Inaxio eta Joxe Antonio Telleria Itzainak

# “Idiak kapritxoaz hazten ditugu”

■ Telleria lasarteoriatarren idi pare nagusitu zen martxoaren hasieran Aiako proba ezagunean  
 ■ Jada ez dira baserriko lanetan erabiltzen eta, beraz, idi demarik ez balego, galdu egingo lirake

Idi dema edo probak egiten dira oraindik Euskal Herriko hainbat tokitan. Martxoaren hasieran Pepenea baserriko Iñaxio Telleriaren idi pare nagusitu zen Aiakoan. Idiek, bi mila kilo inguruko harria mugitzen dute plazaren alde batetik bestera. Jada ez da idirik erabiltzen baserriko lanetan, baina oraindik badira soilik probetarako idiak hazten dituztenak. Pepenea baserrian zazpi idi bikote dituzte oraindik, batzuek gazteak, urte batzuek barru plazan aterako dituztenak. Aitarene zaleztasunari eusten diote Iñaxio eta Joxe Antonio Telleriak.

**H**ainbat idi probetan lortutako manta eta txapelak dira Pepenea baserrikoek duten zaleztasun handiaren erakusle. Inaxio Telleriak, jakinarazi zigunez, itzain ere aritzen da besteen idi pareekin eta 80 txapel baino gehiago baditu etxean gordeta.

Martxoaren 4tik 8ra jokatu zen Aiako idi proban nagusitu zen idi pareak, jada 20-25 manta lortu ditu. Iaz bestek beste Deban, Lezon eta Berrizen. Dena den Telleria anaiek jakinarazi digutenez, idiek bizpahiru urte aguantatzen dute gorengo mailan.

**Aian irabazita, inguruko idi pare onena daukazuela esan al daiteke?**

Oliden oriotarrak ere pare ona dauka, baina bolara honetan bai oso idi onak atera zaizkit.

**Eta Euskal Herri mailan zer moduz zabiltzate?**

Nahiko ondo. Euskal Herriko sei onenen artean gabiltza.

**Garestia al da zaletasuna?**

Ondo ibili ezker, gastutarako adina ateratzen duzu. Hala ere entrenamenduetan orduak sartu behar dituzu, eta hori ez dizu inork ordaintzen. Idi hauek ondo gobernatu behar dira gainera. Normalean las-

toa eta belar lehorra jaten dute; baita pentsua, baba, oloa,... eta bitaminak ere bai.

**Afizioz egiten duzue, beraz?**

Bai. Txikitatik ikusi dugu, jaiotz gero. Aita zenak baserriko lanak egiteko erabiltzen zituen eta gero plazan ere bai. Orain traktoreak badauzkagu eta entrenatzeko bakarrik lotzen ditugu etxean. Batzuetan harri gabe ibiltzen ditugu mendian, eta kubieta batekin ere bai, ordu bete inguru 800-1.000 kilorekin, kilo asko ez, lurtean adokinean baino gehiago heltzen du eta. Tarteka joaten gara plazaren batera ere, Usurbil edo Aiara, uztaurrean lotuta ikusteko. Aldea dago eta uztaurrei batean edo bestean lotuta.

**Txikitatik hazten al dituzue idiak?**

Batzuetan bai. Orain ez da ia idirik hazten eta ez da lehen beste aukera. Zamoran erosi ditut bi, Portugalen ere erosten ditugu eta bi urtetako txekor txikiak ekartzen ditugu Galiziatik.

Galiziako arraza hau berezia da: idiak jada ez dira lanerako erabiltzen, okeletarako beste arraza batzuek denbora berdinarekin doblea pisatzen dute, eta beraz, arraza ez galtzeko Galiziako Diputazioak subentzionatuta dago.



Aian garaipena lortu zuen idi pare Joxe Antonio eta Iñaxio Telleriarekin Pepenea baserrian. Idiek manta jaso zuten, Iñaxiok txap ela.

**Oraindik ba al da zaletasunik?**

Badago bai. Hala ere, Bizkaian Gipuzkoan baino gehiago. Urte guztian daude probak, ligaxka batean bezala proba bakoitzean bost lehenengok 5, 4, 3, 2 eta puntu bat jasotzen dute. Eta urte bukaeran finalak jokatzen dira. Honelako zazpi liga irabazitakoak gara, aspaldi, beste idi pare batzuekin.

**Zenbat kilo darabilte idiek?**

1.100 kilotako modalitatean, pisatu eta bi idiek pisu horretan sartu behar dute. 1.100 kilotik pasatzen badira, harri gainean kiloko kilo eta erdiko zama jartzen zaie. Horregatik eramaten ditugu azken egunetan gutxi janda, tripa ondo hustuta eta ondo muskulatuta. Kirolariak bezala. Ura ere kentzen zaie.

Orain libre daudela 650 kilo izango dituzte eta azken egunetan erregimenean jarrita 50-60 kilo galtzen dituzte.

1.800-2.000 kilo inguru erabiltzen dituzte.

Gero pisu librean, zenbat eta idi handiago orduan eta hobe da. Mila kiloko idiak ere baziren lehen. Usurbilgo harri handiak 4.000 kilotik gora ditu baina guk ez ditugu eramaten, ia inork ez du nahi. Horrelako proba gutxi dago.

**Akuilua erabiltzen al duzue plazan?**

Orain ezin da nahi dugun beste erabili. Juezak hiru abisu ematen dizu eta hirugarrenean akuilua kendu

**Nabaritzen al dute akuilua?**

Bai, idia berez animalia alperrea da, beraz nabaritzen da entre-

namenduan ere. Eman gabe ere bai, pertsona atzean makilarekin ikusita nahikoa da. Tarteka ematen diozu soilik.

Akuiluaren erabilera neur-tuta dago, eztena ere ezin da 11 mm baino luzeagoa izan. Oiarzungo alkate batek debekatu zuen duela 30 bat urte, eta puntarik gabekoa erabiltzen zen, baina bizkairean jotzea okerragoa da, kalte eta min gutxiago egiten du akuiluak.

**Apusturik egiten al da egun?**

Bat edo beste bai.

**Apustu-probarik ez balego, idia desagertu egingo al litzake?**

Idi klase hau bai. Baserrian batzuetan entrenatzeagatik ibiltzen ditugu sorotan, goldean edo arean. Baina bestela ez dira baserrian behar. •



# ANAIAK

## JANTZI-DENDA

40 URTE ZUEKIN !!

**Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA**  
**Tel.: 943 362386**



# Herriko mugetatik bira interesgarria

■ Martxoaren 13an Oinatz Taldekoak Lasarte-Oriako mugak herritarrei erakutsi zizkieten  
 ■ Datu historiko, demografikoez gain bitxikeriak ez ziren falta irteera interesgarri honetan

Lasarte-Oriaren mugak, mugarriz-mugarriz ezagutzeko Oinatz taldeak prestatutako irteerak harrera oso ona izan zuen. 40 bat lagun bildu ziren martxoaren 13an, pasa den igandean ibilbide honetaz disfrutatzeko. Herriko datu historiko, demografiko asko eman ziren ezagutzera irteera honetan, baita bitxikeriak ere. Lasarte-Oria ezagutzeko modu polit eta interesgarria izan zen hau, antolakuntzatik kontent daude izan zuen arrakastagatik, eta urtean behin errepikatzeko asmoa erakutsi dute.

**TXINTXARRI**

**O**tsailaren 15ean Lasarte-Oriaren eraketaren 25. urteurrena ospatu zen. Horren harira Oinatz Taldeak herriaren mugak eta historia lasarteoriatarrei hurbiltzeko asmoarekin mugarriz-mugarriz irteera bat antolatu zuen martxoaren 13ean.

Oinatzeko ohiko taldeki-deaz gain jende ugari hurbildu zen Lasarte-Oriaren mugak eta historia ezagutzeko prestatutako irteera honetan. 40 bat lagun inguru irten ziren martxoaren 13an Jalgitik herriko historian murgiltzeko asmoz "ez genekien zenbat jende etorriko zen, beste irteeretan izena eman behar da baina honetan ez" diote antolakuntzatik. Irteera proposamen hau erakargarria suertatu zen "gainera jendea gogoz etorri zen eta hori garrantzitsua da". Oinatz taldekoek kontatzekoak prestatutak eraman bazituzten ere "jendea apartazioak egiteko asmoz hurbildu zen, partekatuak izan ziren datuak eta polita atera zen irteera".

**Eguraldiaren beldur**

Iganderako euria emana

bazegoen ere "portatu egin zen, mendiko terrenoa lehorra zegoen eta horrek asko lagundu zuen".

Jalgin jarri zuten hitzordua goizean eta hortik komentura egin zuten. Bertan Lasarte-Oriaren sorrerari buruz solas egin zuten, aztarna zaharrenei buruz arituz.

Ondoren, Liberto Aizpuruaren atzeko aldeko parkera egin "eta hipodromoari buruzko azalpenak eman genituen, batez ere noiz eta zeren eraginez sortu zen". Badirudi II. Mundu Gudak izan zuela gehien bat eragina, izan ere, 500 bat zaldi iritsi ziren Europatik hona eta etxe guztiak zaldiz bete ziren, beraz hipodromoa egin zuten. Honek guztiak "erreboluzioa ekarri zuen herrira, beste kulturatako jendea, hizkuntza, ohiturak, janariak..."

**Brunet familiaren inperioa**

Oriara egiteko ordua iritsi eta bertan auzo hau zeren eraginean industrializatu zen aztertu zuten. "Nekazariak ziren hemengoak, baina Brunet familia iritsi zenean kapitalismoaren aro modernoan sartu ziren". Familia garrantzitsua izan zen, Donostiako alkate, Diputatu Nagusi ere izan ziren hauek bartzuk.



Talde handia bildu zen mendi martxa egin eta Lasarte-Oriako mugak, historia eta bitxikeriak ezagutzeko asmoz.

Errepide sare berria egin zenean ere eragina izan zuten eta gainera, errepide berriaren ondoan eraiki zuten haien fabrika.

Fabrika paternalista izan zen "bertan zeuden etxeak, ekonomatoak, kantina nagusiarenak ziren, protestarako aukera gutxi utziz".

Honetaz gain, herrian kotxe zirkuitua, golfa... kokatu ziren eta badirudi horren jatorria Donostian emandako Belle Epoque-n aurkitzen dela "guda garaian Europatik ihesi joiandako dirudun asko Donostiara hurbildu ziren eta hauen aisialdirako ekintzak Lasarte-Orian antolatu ziren".

**Herriaren hazkundera**

Herriko zoru lau utzi eta mendiruntz igotzeko ordua iritsi zitzairen. Azkorte alde-derantz egin zuten, Buruntzak Andoainekin mugak non dituen eta herriko azken base-riak erakutsi ziren.

Goizerdira iritsita energiak berreskuratzeko parada egon

zen, hamaiketakoa. Geldialdia aprobetxatuz datu demografikoak plazaratu ziren "asko hazi da herria, lehenengo datuek 22 baserri 200 pertsona bizi zirela aipatzen dute". Herriaren hazkundera faktore ezberdinek eragin zuten "lehenengo gorakada Brunet familiaren bitartez eta bigarren hazkundera Michelinek sorrerarekin".

**Denbora falta**

Atsedeneren ostean kanposantutik Zabaleta eta Teresategira igo ziren, herriaren beste perspektiba ikusteko "bidez josia dago herria, egungo Lasarte-Oria bide korapilotsu batez osatuta dago". Bertatik martxan dauden obrak eta herriaren zabalkundera ikusi ahal izan zuten "bailara estua da gurea eta hormigoiez beteta dago".

Honen ostean, eta denboraz larri zebiltzatela ikusirik Villa Mirentxu ingurura jaitsi ziren Plazaolako trenbidearen ibilbideaz gehiago jakiteko

"baita herriarentzat zer suposatzen izan zuten ikasteko".

Hemen eman zitzaion amaiera Lasarte-Oria mugarriz mugari ezagutzeko antolatutako irteerari "hurrengo urtean berriro antolatzen bada amaiera ederra emango diogu, bazkari batekin".

**Bitxikeriak**

Kontatu beharrekoa prestatua eraman arren, irteeran parte hartutakoek ere euren apartazioak egin zituzten.

Hauek batek "inork oroitzuten ez zuten detaile polita eman zigun". Badirudi Brunet palazioaren inguruan zegoen grutan, laku txiki bat zegoela txalupekin eta bertan festak ospatzen zirela. Kobazulo horren barruan ama birjinaren irudia kokatuta zegoen eta gainean orein baten brontzeko figura, Brunetarren logoa "eta gaur egun sorgin dantza-ko banderan ikusten dena".

Datu interesgarri gehiago ikasi nahi badituzu ez galdu hurrengo urteko irteera. •

**ADURIZ DE LASARTE S.A**  
 Solomoa baratxuritan  
 Odolkia- Solomo ontzuta      Etxeko txorizoa  
 Tripakiak- Saltxitxak      Basurde burua  
 Txistorra      Baserri pateak

**BERTAKO FABRIKAZIOA**  
 Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451  
 Lasarte-Oria

**MAITE**  
**ESTETIKAKO ARETOA**

Foto depilazioa argi pultsatuekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

**Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria**

# Pello Eskisabel epaile frantsesen aurrean

■ Ostegunean hasi zen lasarteoriatarren eta Manu Ugartemendia kidearen aurkako epaiketa  
 ■ Euskal Herriaren eta bere historiaren berri eman zioten epaileari lehen egunean

Pello Eskisabelek, azken ia sei urteak, Paris ondoko Fresnes-en preso pasa ondoren, aste honetan eraman dute epailearen aurrera. Hau dela eta, astero jasotzen duen Txintxarrin herriko berriak irakurtzea herriarekiko lotura mantentzeko tresna oso baliotsua egiten zaio-lai aitortu, eskerrak eman, eta epaiketan epaileari esango diona helarazi digu. "Gaur, martxoaren 17an, atxilotuak izan ginenetik ia sei urte pasa direla, Pariseko Auzitegi Bereziaren aurrean ekarri gaituzte eta gu juzkatzearekin batera, Euskal Herria aspalditik bere askatasunaren alde garatzen ari den askapen borroka juzkatu nahi duzue" esan zioten hasteko epaileari.

**M**artxoaren 17tik apirilaren 5a bitartean epaituko dituzte Parisko Tribunal bereziaren aurrean Manu Ugartemendia eta Pello Eskisabel herritarra. Hauen ustez, "auzi-fartsa" besterik ez da eta Euskal Herriaren historia eta beraien borrokaren xehetasunak azaldu zizkieten epaileari lehen egunean.

Gainera, bi preso euskaldunen ustez, "Frantzia ere osteguneko gisa desagerrarazten", beraz konfliktu politikoaren parte da eta ez die aitoritzen epaitzeko legitimizatorik.

## Epaiketaren lehen eguna

Epaiketako lehenengo eguna ostegunekoia izan zen eta Manu Ugartemendia eta Pello Eskisabel ez ziren bakarrik egon, herriko eta Errenteriko 25 bat lagun joan baitziren Parisera. Hauetako batzuk, gainera, presoekin egoteko aukera izan zuten.

Epaiketa hasi eta gutxira, Peio Eskisabelek Philippe Vandingenen epaileari bi presoekin izanean idatzi bat irakurtzeko baimeana eskatu zion.

Honetan, Pello Eskisabel eta bere kide Manu Ugartemendiak Euskal Herriko historia azaltzen saiatu ziren.

Honela, 1522. urtean, Gaztelazko indar zapaltzaileek Nafarroako Erresuma sutsitu eta "momentu honetatik aurrera, Espainia eta Frantzia euskal lurraldeak bereganatu zituzten, eta bi aldean erdian muga artifizial bat eraiki zuten. Eta indarrez saiatzen ari dira gu espainolak ala frantsesak bihurtzen," aipatu zuten.

Baina adierazi zuten, "gu ez gara ez espainolak ezta frantsesak ere, guk nahi duguna zera da, euskaldun izan eta bizi euskal estatu batean,

askatasunean, Nazio askeek osatutako Europa batean. Askatasuna maitatzen, gure herriak garatzen ari den askapen borrokan parte hartzea ezinbesteko eginbeharra dela uste dugu".

Horregatik, ETA nazio askapenerako euskal erakundeko militanteak zirela onartu zuten.

## Frantzia ere errudun

Frantziar agintariak euskaldunekin izandako jarreraren errebaso luzea ere egin zuten bi euskaldunek, 1789. urteko Iraultzatik hasita.

"Estatu horrek orain dela mende asko gure lurraldearen zati bat inbaditu, Lapurdi, Nafarroa behea eta Zuberoa, eta armez eta odolez bereganatu zuen. Harrezkerotik, indarrezko asimilazio eta kolonizazio prozesu bat garatzen ari da Euskal Herriaren identitatearen ezaugarriak gal daitezten eta hiru herrialde horiek "frantsesak" bihurtzeko, adierazi zuten.

Garai horietan, frantsesa ez zen beste hizkuntza desagerrarazteko "komenientzia" eta gaur egun ere euskararekiko errespetu falta ere salatu zuten, "oraindik, Frantziak ez du sinatu nahi Hizkuntza Gutxituen Europar Karta, eta errefusatu du euskara hizkuntza ofiziala izendatzea".

Gainera Garat anaiak 1792an Parisen eskatutakoa: "Euskal lurraldearen onaparen eskaera, hau da, hiru herrialdeak departamentu batean biltzea" gogoratu zuten. Frantziak orduan ez zuen eskaera hori onartu eta



Lasarteoriatar eta oreretar ugari joan ziren Parisera Peio Eskisabel eta Manu Ugartemendiaren epaiketara. Arg.: Ooreretarrak.

gaur egun euskal gizarteak Iparralderako eskatzen ari den instituzio berezia ere baztertzeko duela salatu zuten.

1936tik aurrera gertatutako ere azpimarratu zuten, hau da, Frankoren hatzaparretatik alde egin zuten euskal herritarrek kontzentrazio guneetan atxilotu, animaliak bezala bizi eta urte batzuk beranduago, euskal herritar horiek frantsesen aldean, nazismoari bidea ixteko borroka egin zutelana.

Baina, Estatu frantsesak 1970tik aurrera, espainiar estatuko gobernuarekin bat egin zuela ere salatu zuten eta horren ondorioz, "azken 40 urte hauetan euskal borrokalariaren atxilotetak, espetxeatzeak, deportazioak, expulsioko, estradizioak... eguneroko ogia izan dira. Baina ez bakarrik hori, 1983tik 1986ra GAL talde paramilitarrak, espainiar gobernuaren burua zen Gonzalez jaunak polizia eta mertzenarioekin osatua, frantses polizia laguntza eta autoritate politikoaren konplizitatea eduki zuen gerra zikina aurrera eramateko, Ipar Euskal Herrian 27 hildako eta zauritu asko eragin zituen".

Beste bi salaketa ere egin zituzten, batetik bahitu eta

hilik agertu diren euskaldunena eta bestetik Espainian egiten diren torturekin bat egiten dutelako.

Bi euskal presoek ustez, "azken urte hauetan, frantses estatua bere estrategia errepresiboa lantzen ari da euskal identitatearen edozein ikurraren kontra, elkarte kultural edo sozialen kontra, gazteriaren kontra, ezker abertzalearen kontra" adibide gisa bide horretan 2010. urte bukaeran eman zuen pausu berria jarriaz, "espainiar juleek Batasunaren ordezkaria den Aurore Martinen kontra luzatutako atxilotze agindua.

Beraz, Eskisabel eta Ugartemendiaren ustez "Liberté, Egalité, Fraternité" horren izenean, Frantzia saiatu da gu, euskaldun gisa, desagerrarazten, frantsesak bihurtu gaituzten. Euskal Herriak badu memoria eta ez du hau dena inoiz ahaztuko!".

## Ez legitimitaterik

Honengatik eta hitzaldian zehar nabarmendutako beste alor guztiengatik argi eta garbi dute "epaimahai berezi hau Euskal Herria, Frantzia eta Espainia aurrez aurre jartzen duen konfliktu politikoaren parte bat dela. Beraz, auzi

hau auzi politiko bat da eta zuek ez duzue inolako legitimizatorik gu juzkatzeko, ezta gure herriaren borroka askatasunaren alde, hau da, nazio gisa ezagutua izateren alde eta autodeterminazio eskubidearen alde".

Eta "jakin ezazue ez dizuegula emango inolako zehaztapenik ETAKo partaide gisa egindako lanari buruz. Euskal Preso Politikoak gara, Preso Politikoen Estatusa eta Euskal Herria aberriatzea eskatzen dugu. Baina, jakin ezazue, nahi izanez gero, gure borrokaren zio politikoak azaltzeko prest gaudela," azaldu zuten.

Askatasunaren bidean eroritako euskal borrokalari guztiak oroituz bukatu zuen Eskisabelek.

Honetaz gain, epaiketaren sumarioaren irakurketa eta testiguen edo peritoen zitzazio egin ziren lehenengo saio honetan.

## Beste saioak

Arratsaldeko saioan, Peiori galdeketa personala egin zioten epaileek. Honek haien galderei erantzutea uko egin zuten eta bere militantzia azaltzen zuten arrazoiak eman zitkien.

Ostirala goizean, defentsak deituta Tomas Arrizabalaga eta Joxe Goikoetxea herritarrek epaiketan. Hauek Hego Euskal Herrian bizi den egoera antidemokratikoa azaltzen saiatu ziren, hala nola, adierazpen askatasun eza edo alderdien legea. •

*"Auzi-fartsa" honetan Eskisabelek eta Ugartemendiak Euskal Herriaren historia eta beraien borrokaren xehetasunak azaldu zizkieten epaileari lehen egunean*

Egunero

**Erakusketa**

SHANDRA PEREZ LUCERO margo-lariaren lanak ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.



Asteazkena, 23

**Ikastaroa**

TXAKURRAK ONDO HEZITZEKO IKASTAROKO hirugarren saioa. Bertan baliozko legediari buruz arituko dira. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

Osteguna, 24

**Filma**

Topaguneak antolatutako FILM LABURREN ZIRKUITUKO EMANALDIA. Bertan euskarazko hainbat film labur eskainiko dira. Jalgi kafe-antzokian, 21:30ean, EUSKARAZ.



Gaur amaitzen da zine sozialaren zikloa

RETORNO A HANSALA filma eskainiko da Danok Kidek antolatutako VII. Zinema Sozialaren barruan. Ondoren Kopezazioa eta solidaritateari buruz arituko da Medicus Mundi elkarteak.

Hirugarren saio honekin amaitzen aurtengo zine sozialaren zikloa.

GAUR, ASTELEHENA 21 KULTURETXEAN, 17:30EAN

Ostirala, 25

**Dantza**

MIKEL URDANGARIN ETA TRASPASOS D.T.-k "Nora" proiektua eskainiko dute Lasarte-Oria Dantzan egitasmoaren barruan. Sarrera, 6 euro. Kulturetxean, 20:00etan, EUSKARAZ.



Larunbata, 26

**Antzerkia**

"HELEN" haurrentzako antzerkia Panta Rhei taldearen eskutik. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.



Igandea, 27

**Zinea**

ENREDADOS haurrentzako filma eskainiko da. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, arratsaldeko 17:00etan. GAZTELANIAZ.



Osteguna, 31

**Zinea**

UN PROFETA filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4,20 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean. GAZTELANIAZ.



**Oharrak**

**Eskolako estutxe bat galdu da**

Eskolako estutxe bat galdu da, granatea, Kutxatik Euskotreneko geltokiaren bidean. Estutxearen barruan ahots grabagailu bat, 2 pendrive eta giltza bat zeuden besteak beste. Itzultzea sarituko da. Harremanetarako telefonoa: 667 680 498 / 667 315 879 (Izaro, M<sup>a</sup> Angeles).

**Maria Auxiliadoraren meza**

Zumaburuko Arantzazuko Amaren kaperan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da martxoaren 24an, ostegunean, arratsaldeko 17:00etan.

**Exteraten elkarretaratzea**

Hileko azken ostiralero bezala, martxoaren 25ean Lasarte-Oriako Exteratek kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu zezaten.

**Odol ateratzeak**

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan martxoaren 28an arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

**Helduentzako irristaketa ikastaroa**

Ostadar K.F.ak helduentzako irristaketa ikastaro berria antolatu du martxoaren 26 eta 27an.

Saioak goizean zehar izango dira eta prezioa 17 euro dira. Irriaketa ikastaroan izena emateko epea martxoaren 23an, asteazkenean, bukatzen da. Informazio gehiago Ostadarreko egoitzan, Geltoki kalea 25.

**Oharrak jartzeko:**

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00 eta 16:00 - 21:00  
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irrati programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

**Eskutitza**

**Sakabanatuta antolatzen dira ekintzak herri honetan**

Iraila inguruan, Txintxarriren eta beste egunkariren batean ere irakurri nuen batetik Felix Telleriak eta bestetik Erketz Dantza Taldeak, Euskal Dantza eta muxikoak irakasteko ikastaro bat antolatu zutela.

Urte hasieran berriz, Ttakun Elkartek eta David Egizabalek beste Euskal Dantza eta muxikoek ikastaroa antolatu dutela irakurri dut berriro ere.

Nire iritiz, hobe litzateke denak elkartzea, eta denak

batera ikastaro bat antolatuko balute (ikastaro bat edo behar direnak). Talde handi bat osatuz gauzak errazago egin daitezkeela uste dut. Alde batetik 10 edo 15eko hiru talde egon behar, 50 edo 60ko talde handi bat osatuko litzateke. Irakasleak bata besteari lagunduz erosoago eta posibilitate gehiagorekin egingo lukete lan. Gainera zenbait ekintza antolatzeko (ad.: erromeriak, Euskal Jaiak, Sorgin Dantza, inauteriak...) erraztasun handiagoa izango lukete eta jendetsuagoak izan zitezkeen deialdiak.

Umeen arloan zentzu

honetan hasi da lanean Kukuka taldea, non Dantza Garaikidea, Euskal Dantza eta Antzerkia elkartu diren, gainera hainbat elkartetek elkarlanean egiten dute lan. Ez da erraza izango agian, baina elkarlana hasita dago, bidean dira, eta gauza politak irten daitezke hortik.

Ni ez naiz Lasarte-Oriakoa, eta ez ditut hemengo lehenagoko gertakizunak ezagutzen, eta behar bada ezjakintasun honek ekartzen dit ez ulertzea.

Herri honetan gauzak egin eta antolatzeko sakabanaketa handiak ikus-

ten ditut, bakoitzak berea egiten du eta ahal bada beste inoren laguntzarekin kontatu gabe. Ez dut ulertzen.

Lasarte-Oriara etorri nintzenezan bizitzera, gauza bat ikusi nuen garbi, oso zaila dela euskaraz bizitzea, euskal kulturaren murgiltzea, azken finean euskal giroan bizi ahal izatea.

Urte batzuk igaro ondoren ikasi dut, zailtasun horietako asko, guk sortu eta handitzen ditugula, guk bakarrik, ez dugula beste inoren laguntzarik behar.

J.R.

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkariara. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

# Bertso eskolan, Andoni Egaña, maixu

Martxoaren 31n eta apirilaren 1ean bere esperientzia erakutsiko du Kultur etxeko saio irekian.

Ttaku elkarteko bertso eskolak Gipuzkoako Txapelketaren prestaketarekin segitzen du. Martxoaren 31 eta apirilaren 1ean eskola berezia jasoko dute herriko bertsolariek, kultur etxean, Andoni Egañaren ahotik. Gainera bi entrenamendu saio horiek nahi duenarentzat irekiak izango dira, hau da, txapelketako saioen nondik norakoak jakin edota ariketa ezberdinei nola erantzun ezagutzeko interesa edo jakin-mina duen edozein joan daiteke bi saio hauetara. Ondo bukatzeko, apirilaren 1ean Arrieskalletan bertso afaria izango da Andoni Egaña eta Xabier Amuritzarekin.

**G**ipuzkoako Bertsolari Txapelketa maiatzean hasiko da, baina herriko bertsolariak buru belarri ari dira prestaketan. Irakasle entzutetsuak kontratatu ditu gainera aurren Bertso Eskolak herriko bertsolariak trebatzeko.

Batetik, ostegunetan Karlos Aizpuruarekin entrenatzen ari direnek oso esperientzia positiboa dela adierazi dute, asko ikasten ari direla eta sormeneko hainbat baliabide edota tresna ezagutu dituztela gero txapelketara puntu puntuan iristeko bakoitzak bere erara lantzen jarraitzeko. Apirilaren 7an amaituko dira Karlos Aizpuruarekin entrenamendu teoriko eta praktikoa hauek.

Bestalde, saio hauen osagarri, beste bi entrenamendu berezi burutuko dituzte martxoaren 31 eta apirilaren 1ean arratsaldeko 18:00 eta 21:00 bitartean. Txapelketetan hainbesteko esperientzia duen Andoni Egaña bere trebezia eta jakituria baliatuko du, Gipuzkoako Txapelketa prestatzen ari diren bertsolariei aholkuak eman eta txapelketako ariketei nola aurre egin erakusteko. Txapelketan ahalik eta emaitzarik onenak lortzeko une bakoitzean jokabide aproposa izateko eta erantzun egokia emateko

aholkuak luzatuko dizkie.

Ttakuneko antolatzaileek argi dute ikastaroen helburua, "Karlos Aizpuruarekin errendimendu altua bilatzeko ekarri dugu ikastaroa ematera, hau da, txapelketa datorrela eta bertsolarien torlojuari beste buelta bat emateko. Egaña ez da horretara etorriko, bere aldetik, bere esperientziatik erakutsiko du erakutsi beharkeoa".

Dudarik gabe, Andoni Egañaren azalpen eta argibideak oso interesgarriak izango dira, eta Bertso Eskolak erakustaldi berezi hauek irekiak izatea erabaki du, hau da, aukera zabaldu eta nahi duen orok izango du kultur etxeko bertso eskolara joan eta txapelketako prestakuntzaren nondik norakoak ezagutzeko modua. Herriko bertso eskolako jarriko dituz lanean Egaña, baina nahi duena joan daiteke ikustera.

## Afaria Arrieskalletan

Apirilaren 1ean izango da hain juxtu Arrieskalleta elkartearen urtero antolatutako ohi dute bertso afaria.

Bertso eskolaren ondoren elkartearen afaldu eta kantatuko dute Andoni Egaña eta Xabier Amuritz txapelkun ohiek. Euskal Herriko lau txapel jantzi dituzte zarautzarrak 1993 eta 2005 artean eta bi jantzi zituen



Txapelketan emaitzarik onenak lortzeko ariketa bakoitzean zein jokabide hartu behar den erakusten saiatuko da Andoni Egaña.

Ettxano-Zornotzan jaio zenak 1980 eta 1982an.

Afari txartelak gaur bertan jarriko dira salgai Jalgi tabernan 20 eurotan.

## Gustura Aizpuruarekin

Urtarrilean hasita lau hilabeteetan ikastaro teoriko eta praktikoa eskaintzen ari da, Karlos Aizpuru, hainbat urtetan Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako eskoletako irakasle izandakoa eta lehen hiru hilabeteko prestaketa saioen ondoren oso ondo baloratu dute ikastaroan parte hartzen ari diren zortzi bertsolariek: Zigor Iriondo, Andoni Otamendi, Unai Muñoa eta Ane Labaka herritarrak, eta beste lau bertsolari gazte Beñat Iguaran, amasarrak, Asier Azpiroz zubietarrak, Unai Gaztelumendi aňorgatarrak, eta Oier Iruamendi hermaniarak.

Esaterako Andoni Otamendik ikastaro oso esperientzia positiboa izan dela adierazi digu: "Urte pila bat aritu naiz bertsoan beti norabide berean, eta orain beste era

batera landu ditugu lehen inkontzienteki egiten genituen gauzak. Ikastaroan, maila teorikoan eta praktikoan, beste era batera egin dugu bertsoan.

Unai Gaztelumendik ere oso ondo baloratu du ikastaroa. Bere iritziz, lehen ez zekien bertso baten arrakastaren zergatia, "ez nekien ze arraiorengatik gustatzen zitzaien jendea. Orain, Karlosek azaldu digu zerk funtzionatzen duen, zerk ez". Bere iritziz, gero jasotako hainbat baliabide eta informazio bakoitzak egin behar omen du bere aukeraketa, zer erabili eta zer ez ikusteko: "Nik behintzat nire filtroa jartzen diot. Azken finean, eremintak eman dizkigu eta gero horiekien lan egin behar da".

Oso argi du Unai Gaztelumendik miraririk ez dagoela eta bertsolariek egin behar duela lan: "Guk ez badugu lantzen alperrik da, lana da balio duena".

Otamendik herri kirolarien entrenatzeko moduarekin alderatu du: korrika, aizkoran edo arranean egin eta egin

egiten zuten apusturako prestatzeko. Karlosek hori erakutsi du, orain hamar kilometro, orain serieak, orain fondoak, ... baina lana egin behar dela".

## Txapelketari begira

Txapelketa urrutiko xamar ikusten bada ere, ikastaroarekin bertsolariek txapelketari begira jarri dira: "bertsoan jarri gaitu Karlosek, txapelketako lan eta tentsioarekin, ... Horrek ahalbidetu du jada txapelketara begiratzea" adierazi digu Otamendik.

Gogoz hartuko dute bertsolariek Andoni Egañaren mintzaldi-erakustaldia ere: Unai Gaztelumendiren ustez, oso desberdinak izango dira eta Egañarena ez da hain teorikoa izango.

Andoni Otamendik ere berdina uste du: "Egaña gauza politak egingo ditu, batez ere ikusleentzat. Karlosek, aldiz, lana egin nahi duenarentzat, bere bertsokera findu eta estutu bat eman nahi duenarentzat, aukera bat eskaini du, lana egin behar gero". •

Adarra 2 behea • Lasarte-Oria  
Tel.: 943 362460

Gorputz-tratamenduak  
Masajeak

...  
... ETA GIZONENTZAT ERE BAI !

LEKU BERRIAN